

DESKRIBAPENA

Gure enpresaren ideia aplikazio digital bat sortzea da, batez ere gazteei zuzenduta dagoena. Aplikazio honen helburu nagusia erabiltzaileei etorkizuneko lan egokiena aurkitzen laguntzea da, haien gustuak eta interesak kontuan hartuta, baina baita diru-sarrera onak izateko aukerak ere.

Aplikazioa erabiltzeko, pertsonak formulario sinple bat bete beharko du. Formulario horretan bere gustuak, trebetasunak eta lanari buruzko lehentasunak adieraziko ditu. Datu horiek erabiliz, aplikazioak lanbide desberdinak aztertuko ditu eta erabiltzaileari gehien gustatuko zaion eta diru gehien irabazteko aukera emango dion lana gomendatuko dio.

Gure aplikazioa ekonomikoa izango da, hau da, prezio baxua izango du, denek erabili ahal izateko. Horrela, gazte askok, ikasleek batez ere, aukera izango dute aplikazioa erabiltzeko eta etorkizunari buruzko erabaki hobeak hartzeko. Gaur egun, lan aukerak asko dira, baina askotan zaila da zein den egokiena jakitea. Horregatik, gure enpresak laguntza erabilgarria eskaini nahi du.